

ARO BERRIA



ULISES PROUST

Gorostidi: “Epaiketa zein idealizazioa saihesten saiatu naiz”

IRATXE MARTÍNEZ

Film bat Zinemaldian estreinatzea intentsitate handiz bizi den une bat da beti, baina Irati Gorostidirentzat (Eguesibar, 1988) *Aro Berria* New Directors sailean estreinatzea bere ibilbide zinematografikoaren lorpen bat baino zerbait gehiago da: memoria intimo baten eta oraindik ere oihartzuna duen testuinguru historiko baten arteko konbergentzia da. Atzo, filmaren estreinaldia baino ordu batzuk lehenago, Gorostidik aitortu zuen oso urduri zegoela, baina, batez ere ilusioz gainezka, une hau filman lan egin duen ia lantalde osoarekin partekatzeko. “Kredituak ikusten badituzu, ia izen guztiak nire ondoan eserita egongo dira”, zioen zinemagile nafarrak pozarren. Eta ez da gutxiagorako: gidoiari buruzko lehen elkarrizketetatik lagundu diotenak etorriko dira estreinaldira: senideak, lagunak, ekoizleak, argazki-zuzendaritza, artea... “Mundu guztia”, errepikatzen zuen, “ikusleek filmaren atzean dauden aurpegiak ikusiko dituzte Kursaal, filma posible egin duten pertsonenak”.

Aro Berria bilaketa pertsonal (Irati

Gorostidiren gurasoak Arco Iris komunitatekoak izan ziren) eta kolektibo batetik sortu zen. Ideia 2016an hasi zen inkubatzeko, Gorostidik, gurasoen istorioak entzunda, Arco Iris komunitate tantrikoaren testigantzak jasotzea proposatu zuenean. Ordu-ra arte, eskuragarri zegoen informazio bakarra zen protagonistek berek dokumentatu zutena. Arco Iris komunitatea, Nafarroan hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarkadetan finkatua, Euskal Herriko lantegiak astintzen zituzten langileen indarren ondorioz sortu zen. Hainbat urtetan zehar, komunitatean eskaintzen ziren ikastaro eta tailerren argazkiak bildu zituen, izerditan zeuden gorputz biluzien argazkiak, erritual kolektibo katartikoen argazkiak, arlo sozial eta espiritualaren arteko esperientziak: irudi horiek liluratu egin zuten eta dokumentatzera, elkarrizketatzera eta ikertzerara bultzatu zuten. “Trantsizioan Euskal Herria zenaren eta komunitateko bizitzaren arteko kontrasteak atentzioa eman zidan”, dio zinemagile nafarrak.

Laurogeiko hamarkada horretan, komunitate tantriko bat sortu zen Na-

farroako herri batean, Arco Iris izenarekin beste gizarte-eredu bat bilatzen zuena: dena partekatzea eta gorputzarekin eta espiritualtasunarekin esperimintatzea, hainbat modutan. “Komunitatean ikastaro asko egiten ziren, haien diru-iturri nagusia, eta leku guztietako pertsonak joaten ziren”, dio Gorostidik.

Hastapenetatik, *Contadores* film laburrean esploratzen zuen unibertso bat luzatzen da film honetan. Baina *Aro Berria* ez da memoria film bat bakarrik: hausnarketa kolektiborako deia ere bada. Trantsizio politikoari buruz, bidea egin zuten utopiei buruz eta etenda geratu zirenei buruz, elkarrekin egoteko beste modu bat irudikatu nahi izan zuten komunitateei buruz, izerdia botatzera, dantzatzera, adieraztera, inposatutakoa baino zerbait gehiago bilatzera ausartu ziren gorputzei buruz. Eta orainari buruz, esperimentu haien oihartzuna nola bizi den gure artean galdetuz.

Aro Berria bere ibilbidea egingo du hainbat zinemaldietan zehar datorren azaroaren 28an zinema-aretoetara iritsi arte.

GURE KONPROMISOA EUSKARAREKIN ZINEMALDIAN



GARAK eta GAUR8-k
Donostia Zinemaldiarekin elkarlanean,
euskarazko azpidatziekin proiektatutako
filmak babesten dituzte

**NUESTRO COMPROMISO CON EL
EUSKARA EN EL ZINEMALDIA**

GARA y GAUR8 colaboran con Donostia Zinemaldia
patrocinando las proyecciones de películas
con subtítulos en euskara

GARA

GAUR8
mila leiho zabalik